

Sexua/generoa H₂ ikasteen: gaia zertan den

Josu Perales

Hizkuntz ikasle hobeak dira emakumezkoak gizonaizkoak baino? Modu berean ikasten al dute bigarren hizkuntza? Nahikoa uste hedatua da emakumezkoak gizonaizkoak baino trebeagoak direla hizkuntz kontuetan. Baina, nahiz eta uste horri eusten dioten azterlanak ugari izan, ez dago aho bateko adostasunik gaia ikertu duten adituen artean. Badago ikerketa-norabide bat, gero eta gora handiagokoa, gizonaizkoen eta emakumezkoen arteko hizkuntz aldeak zio kultural eta sozialen ondorio direla dioena. Era berean, badira hainbat eta hainbat ikertzaile gizonaizkoek eta emakumezkoek era desberdinetan ikasten dutela diotenak. Gai horiexek jorratuko ditugu artikulu honetan.

Sarrera

Nahikoa uste zabaldua da emakumeek aiseago ikasten dituztela hizkuntzak gizonaizkoek baino. Jatorrizko hizkuntzari dagokionez ere, hitzetik hortzera entzun eta irakurtzen da neska txikiak lehenago hasten direla hizketan mutirik baino. Jespersen-ek (1922) adierazi zuenez, neskatok, oro har, mutirik baino lehenago eta jarioitasun handiagoz ikasten dute hizketan. Era berean, zuzenago hitz egiten dute eta gutxiagotan dira mutirik ahoskeran hain nabariak diren errakuntzen egile. Hari beretik, ia ehun urte geroago ere, adostasun handia dago hizkuntz patologietan aditu direnen artean esaten dutenean horrelako hizkuntz disfuntzioak (totel-moteltasuna, disartirik, dislirik. etab.) sarriago ikusten direla mutirik artean neskatoketaino.

Haurrak, nerabeak eta helduak

Ez dira urri, bestalde, H₂ren kasuan ere, emakumezkoen nagusitasuna erakusten duten ikerketak. Baina, horiekin batera badira erabateko baiez-tapenak lausotzen dituzten emaitzak ere. Bogaards-ek (1990) dioenez, H₂ren alorrean sexuen arteko aldeen irudi koherenterik nahi duenak aparte behatu beharko ditu haurrei (4-12 urte), nerabeei (12-17) eta helduei buruzko datuak.

Haurrak

Bogaards-en ustez, haurrei buruzko datuak gutxi dira eta ez ildo batekoak. Ikertzaile batzuek neskatokien nagusitasuna aldarrikatu dute. Burstall-ek (1975), esaterako, azterlan bat burutu zuen hezkuntzako lehen

mailako eskolume frantses ikasleekin Britania Handian eta, bere emaitzen arabera, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortzen zituzten hizkuntz probetan; 6.000 eskolumer hartu zuten parte. Ekstrand-ek (1980), bere aldetik, Suedian burututako bi ikerketaren berri eman zuen; bata ingelesa ikasten ari ziren eskolume suediarrekin burutua, eta suediera ikasten ari ziren kanpotik etorritako hurrekin bestea. Ondorio berberera iritsi zen bi azterlanetan: neskek mutilek baino emaitza hobekak lortzen dituzte. Baina, badago kontrakoa dioen autorearik, hau da, mutikoak neskatoei nagusitzen zaiela (Politzer & Weiss, 1969), baita parepareko emaitzak eskuratzen dituztela dioenik ere (Cloos, 1971; Brière, 1978).

Nerabeak Elkarrekin bat datozen datu askotxo ditugu nerabeei buruz. Ikerketen ia emaitza guztien arabera, hobekak dira neskak mutilak baino (Vocolo, 1967; Westphal et al. 1969; Politzer eta Weiss, 1969; Smith, 1970; Burstall, 1975). Badago, hala ere, adostasun hori hausten duen azterlanik (Brega eta Newel, 1967; Langouet, 1979), autore horiek ez dute-eta alderik aurkitzen. Eta Cross-ek (1983) mutilak hobekak direla dio.

Helduak Bogaards-en ustez, elkarren antz handiagoa dute H₂ren ikasle helduek; ez baitago alderik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Horixe egiaz-tatu dute, besteak beste, Pimsleur et al.-ek (1962); Suter-ek, (1976); Carroll-ek, (1967/1968); eta, Liski eta Puntanen-ek, (1983). Baina, hemen ere, ez dago aho bateko emaitzarik. Boyle-k (1987), Hong Kong-en ingelesa ikasten ziharduten 500 ikasle unibertsitario txinatarrekin, hiztegiaren ezagutza neurtzeko asmoz egin zuen ikerketaren arabera, emakumezkoak gizonezkoek baino gaitasun orokorrean.

**Lehenengo
hizkuntzaren
eskurapena eta
sexu aldagaia**

Lehenengo hizkuntzari dagokionez, Maccoby & Jacklin-ek (1974) ere hiru arotan banatu zuten gizakiaren hizkuntz garapena adinaren arabera. Lehenengo aroan, jaio eta hiru urtera bitartekoan, neskatoen hizkuntz garapena bizkorragoa da mutilena baino. Bigarrenean, hirutik hamaikara bitartekoan, ez dago alderik eta, hirugarrenean, hamaikatik aurrerakoan, berriro ere nagusitzen zaizkie neskak mutilei. Emaitza horiek ez zuten, hala ere, gero azterlanen sostengurik jaso.

Macaully-k (1978) gaiari buruzko azterlan batzuk eta beste zenbait azterlanen berrikusketa egiten zuten hainbat artikulu ere arakatu zituen. Horiek guztiak jorratutakoan, ondorioztatu zuen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldeak hizkuntz garapenean hain direla ñimiñoak eta kontraesanezkoak ezin baita baieztatu batzuk besteak baino hobekak direnik. “Gaur egun, hizkuntzei buruz dakiguna dakigula, esan daitekeen gauza bakarra da **EZ** dagoela alde esanguratsutik gizonezkoen eta emakumezkoen artean hizkuntz abildadean” (Macaully, 1987: 361).

Eta, ildo beretik, Hyde eta Linn-ek (1988) burututako metanalisian ere –165 azterlan arakatu zituzten, 1.418.899 lagunen gaineko informazioa bilduz– ondorioa izan zen ez dagoela inolaz ere oinarri nahikorik giza-kien hizkuntza-erabileran sexuaren araberako alderik dagoela esateko.

Crawford-ek (1995) adierazi du, AEBko hezkuntza-sisteman eta jatorrizko hizkuntzari dagokionez, ugariagoak direla antzak aldeak baino gizon-zkoen eta emakumezkoen artean, nahiz-eta aitortu ere egiten duen emakumeen nagusitasuna agerian jarri duten azterlanak badaudela. Datu kontrajarriak etengabe ari dira plazaratzen. Cole-k (1997) 400 azterketa-eredu, AEBetako 1.400 eskolatan milioika ikaslerekin erabiliak aztertutakoan –*The ETS Gender Study*–, hauxe ondorioztatu zuen:

Gender differences were shown to change as students grew older and moved to higher grades. The gender differences were very small at grade 4. Females increased their small lead on males in some language subjects from grade 4 to grade 8, and males registered small gains over females in math concepts and science from grade 8 to grade 12. The spread in scores was found to change over the grades as well. At grade 4 spread differences were very small but the spread of scores was larger for males than for females at grade 12, a result that especially affects differences in highly selected groups (Cole, 1997: 3).

Alderik nabarmenak 12. mailan bistaratzen dira. Neskak mutilen hizkuntz gaitan eta mutilak neskeni “zientzietan” gailentzen zaizkielako ustea baieztatuz. Esatekoa da, hala ere, 30 urteren joanean, mutilek “zientzietan” neskekiko zuten aldea askozaz gehiago murriztu dela neskek hizkuntz gaitan mutilekiko zutena baino. Beraz, horren arabera, denborak nesken alde jokatu luke.

Emakumezkoek eta gizonezkoek ez dute berdin ikasten

Lorpen-mailarekin ez ezik estrategiekin ere badu lotura *sexu* aldagaiak. Bacon eta Finneman-en lanaren arabera (1992), emakumeek motibazio handiagoa eta, oro har, ikas-estrategien erabilera zabalagoa ere erakutsi zuten. Ildo beretik, sarriago baliatzen ziren ikas-estrategia sozialez gizonezkoak baino. Gizonezkoek, aldiz, sarriago erabiltzen zituzten ikas-estrategia analitikoak. Halaber, emakumeek joera handiagoa zuten xede-hiztunekin, gaztelaniadunekin, solas-harremanak mantentzeko. Hala ere, alde horiek, estatistikoki esanguratsuak izan arren, ez zuten bariantza osoaren ehuneko handirik azaltzen (%8). Oxford-ek sakonetik ikertu ditu H₂ ikasteko estrategiak eta sexuari dagokionez zera dio:

When L2 research has considered gender, it has usually... demonstrated gender differences in strategy frequency, with women consciously choosing to use particular sets of strategies more often than men. Women especially tended to use general study strategies, social strategies, affective strategies, and certain conversational or functional practice strategies more frequently than men across a number of studies, thus usually showing a greater range of frequently used strategy categories (Oxford, 1993: 549-550).

Baieztatu egiten du, beraz, emakumezkoek joera handiagoa dutela estrategia afektibo eta sozialetarako.

Aldeen azalpen bila

Sexua vs. generoa

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden aldeak zeri zor zaizkion azaltzerakoan, bi ikerketa-norabide nagusi bereiziko ditugu H₁rako nahiz H₂rako. Lehenengo ikerketa-norabideko ikertzaileek aztertzen dute ea alderik badagoen gizonezkoen eta emakumezkoen artean maila neurofisiologikoan. Norabide horretako aztergaia ere bada ea balizko alde horiek hizkuntz portaera desberdinen erantzule ote diren. Bigarren norabidean ari direnek, berriz, hizkuntz portaeraren izaera soziala eta kulturala azpimarratzen dute. Eta aldeak izaera sozial eta kultural horrixe egotzen dizkiote. Bigarren ikuspegi horretakoek, gainera, sexuaz baino generoaz hitz egin nahiago dute (Ehrlich, 1997).

Sexua

Lehenengo norabidean lanean ari diren ikertzaileei dagokienez, esan beharra dago gizakiaren burmuina aztertu duten neurofisiologoak ez daudela guzti-guztiak erabat ados esatean, garunaren antolamenduan, aldeak badaudela gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Badira ikertzaileak gizonezkoen eta emakumezkoen garunak modu desberdinetan antolatutik daudela diotenak. MacGlone-k (1980) gaiaren gaineko literaturaren azterketa egindakoa, ondorioztatzen du emakumezkoen garunak simetrikoagoak direla. Kimura-k (1980, 1983) argudiatzen du hizketarako guneak atzeko ezker aldean daudela emakumeen garunean. Gizonezkoen garunetan, berriz, aurre eta atze aldean erdibanatzen dira. Bada, era berean, baieztapen horrekin bat ez datorren autorerik. Fairweather-ek (1982), esaterako, ikusmenaren lateralizazioa arretagune zuten azterlanen berrikusketa egindakoa, ondorioztatu zuen ez zegoela gizakien garunean, lateralizazioa zela medio, *sexu* aldagaiari lepora zekioken alderik.

Steele-k (1988), hizkuntza, eta, *sexu* aldagaiaren arabera lateralizazio-aldeak aztergai harturik, hainbat lan berrikusitakoan, ondorioztatu zuen ez dagoela frogarik esateko lateralizazio-aldeek –egongo balira ere– hizkuntz portaera desberdinak dakartzatela. Bere ondorioa da hizkuntzarako oinarritzko ahalmena ez dela gizakiengan aldatzen sexuaren arabera.

The neurophysiological literature suggests the same conclusion. There is no reason, however, to think that the types of differences discussed here (*aldeak garunean*) are the bases of the differences discussed there (*aldeak hizkuntza performantzia*). The link between the two kinds of work is more abstract. The literature on language and sex differences allows a focused investigation of the range of possibilities (socially based, developmentally based, and neurophysiologically based) available to humans, *given an essentially invariant innate linguistic capacity* (Steele, 1988: 267) (letra etzana geurea).

Ez dira gutxi, beraz, aldeak daudela diotenek egiaztatu beharreko hipotesiak: batetik, hizkuntz aldeak argi eta garbi bistaratu beharko lituzkete. Bestetik, burmuinean, sexuaren arabera aldeak ere badaudela agerian jarri beharko lukete. Eta hirugarrenik: aurreko biak egiaztatuko balira ere, burmuinean dauden aldeak hizkuntz aldeen sortzaile badirela ere frogatu beharko lukete.

Bigarren ikuspegiari gagozkiolarik, hainbat eta hainbat autore gero eta sendoago aldarrikatzen ari dira gizonezkoek eta emakumezkoek hizkuntz portaera desberdinak dituztela usadio sozial eta kulturalek eka-riak. Ekstrand-en iritziz (1980), -burmuinean egon litezkeen aldeak bazter utzi gabe– umeen arteko aldean arrazoa, ernetasunari, burmuina-ren funtzionamenduari, aldagai kognitiboei eta alde kulturelei zor zaie.

Askotan emakumezkoek gizonezkoek baino emaitza altuagoak zergatik lortzen dituzten eta, era berean, emakumezkoek H_2 ikastearen aurrean dituzten jarrerak zergatik diren aldekoagoak argitzeko asmoz, Ellis-ek (1994) ere erantzun zuen badirela aldeak testuinguru sozial eta kulturala-ren fruitu direnak. Sadker & Sadker-ek (1993) aitatzten dutenez, H_2 rako ikasgelako elkarreragina aztertzeo burutu diren azterlan askok agerian jartzen dute irakasleek ez dituztela berdin tratatzen neskak eta mutilak. Gass eta Varonis-ek (1986) ingelesa ikasten ari zen talde baten hizketa-elkarreraginak azertu zituzten eta beren ondorioa izan zen emakumez-koek gehiago hartzen zutela parte input ulergarria eskuratzeko. Gizonezkoak, berriz, gehiago arduratzen ziren output ulergarria ekoizte-az beste ezertaz baino. Holmes-ek (1991) egindako berrikusketan hauxe dio ondorioen artean:

... the research reviewed suggests that the right of female students in their classrooms require careful attention. Females tend to be “good” listeners, supportive and cooperative conversationalist, creating a comfortable environment for others’ talk, while males by contrast tend to compete for the floor and use a range of conversational control devices to ensure they keep it. Female students are providing an ideal contexts for their conversational partners, but in mixed-sex interactions they are generally less than they fair share of conversational encouragement (Holmes, 1991: 215).

Beraz, emakuzmezkoak “entzule” onak dira eta badakite beste solaskide-entzako hizketa-giro adeitsua sortzen. Gizonezkoak, berriz, hizketa kon-trolatzea dute gogoko eta elkarren lehian ari dira kontrol hori lortu eta ziurtatzeko.

Sunderland-ek (1995) idarokitzen duenez, hizkuntzen irakaskuntzan, beste irakaskuntza-motetan ez bezala, neskek arreta handiagoa jasotzen dute irakasleengandik mutilek baino. Cole-k (1997), eskola-giroan nes-kek hizkuntz gaietan –idazmenean, batez ere– eta mutilek matematika gaietan zergatik gailentzen diren argitu nahirik, zera dio: eskolan, emai-tzetan, ikusitako aldeak bat datozela gero eskolatik kanpo, gizartean, ikasleek dituzten interesekin eta, halaber, lagun artean egiten dituzten gauzekin. Julé-k (2002) ere aurreko azterlanen ondorioekin bat etorritz, adierazi zuen H_2 ren ikasgelan neskak mutilak baino isilago jardutea, par-tez bederen, irakaslearen irakas-estiloari zor zaiola, ez baititu berdin tratatzen neskak eta mutilak.

Gleason-en (1995) abiapuntua da, H_1 i dagokionez, neskatoak mutikoak baino sosegu handiagoz (joko-jolas lasaigoak...) dihardutela, eta, horre-xegatik, zaindarien (guraso, irakasle, tutoreak...) ere modu desberdinean hitz egiten dietela. Mutikoekin, agi denez, usuago erabiltzen da haien arreta jasotzeko hizkera. Eta, hizkuntz inputa sexuaren arabera desberdi-

na izaki, haurren outputa ere desberdina izango da. Gleason-ek ez du ukatzen hasieran, gizakia jaiotakoan, sexuari soil-soilik zor dakioken alderen bat dagoenik. Bere ustea da, jaiotzetik egon daitekeen alde xume hori, gizakia hazi ahalean, handitu egiten dela maila sozialeko eragileei esker.

Aztura sozialen eragina eta aginte-erlazioak aintzat hartu dituen beste autore bat Holmes (1991) da, H₂rako nahiz H₁rako. H₁en kasuan, esaterako, aski arrunta da kultura askotan emakumezkoei “berritsu” direla eta garrantzirik gabeko txaldankeriez kontu kontari ari direla leporatzea. Uste horri jarraikiz, gizonezkoek gutxiagotan baina “pulamendu” handiagoz hitz egiten dute.


Halaber, Ehrlich-ek (1997) hizkuntz portaeraren ikuspegitik egindako lanen berrikusketaren arabera, generoa konstruktua bat baino ez da, eragile historiko, kultural, sozial eta elkarreraginezkoek moldatua. Eta, ezbairik gabe, gero eta indar handiagoa hartzen ari da ikuspegi hori (Weatherall, 2002; Coates, 2003; Eckert & McConnell-Ginet, 2003).

Gaia gurean

Helduen euskalduntze-alfabetatzean, gehiago dira euskaltegietan euskara ikasten ari diren emakumezkoak gizonezkoak baino (ikus.1). Bi multzoen arteko proportzioa, gainera, aski egonkor ageri da urteetan zehar. Emakumezkoen zenbatekoa handiagoa izatea bat dator beste inguruneetan ere gertatzen denarekin, Galesen, esaterako.

Euskararen erabilerari dagokionez ere badira sexuen araberako aldeak. Halatan, 1997-2001 urteen artean, Euskal Herrian, euskararen erabilerak izan duen gorakada -0,5 puntukoa- emakumezkoei zor zaie, ezbairik gabe (Hernández, 2002). Urri dira, euskararen erabilera dela-eta, sexuen arteko aldeei begirako azterlanak. Eta zergatikoak ikuspegi sozialetik bilatu dira, lehenago aipatutako bigarren ikuspegiarekin bat etorritz.

.1:



Euskara ikasten ari diren helduei dagokienez, jasotako hainbat datu (Perales, 2000) berriro hartu eta aztergai dugun aldagaiaren ikuspegitik begiratuko diegu. Hiru aldagai-multzo bereiziko ditugu: kognitiboak, psikosozialak eta lorpen-emaitzak. Lehenengo multzoan kontzientzia metalinguistikoa eta ikas-estrategiak lekutuko ditugu. Bigarrenean, antsietatea, motibazioaren intentsitatea, motibazioaren noranzko integritatiboa, motibazioaren noranzko instrumentala, eta, jarrerak, euskararen, ikas-prozesuaren eta hiztunen aurrekoak. Hirugarren multzoan errendimendua lekutuko dugu, hiru bidetatik jasoak: berariaz sortu eta aplikatutako probaz, irakasleak emandako kalifikazioaz eta ikasle bakoitzak egindako autoebaluazioaz.

.2: Sexua eta aldagai kognitiboak

<i>Sexua</i>	<i>Em.</i>	<i>Giz.</i>		
<i>Aldagai kognitiboak</i>	X ₁	X ₂	T	A. graduak
<i>Kontzientzia metalinguistikoa (1)</i>	8,38	8,39	-0,20	380 184,842
<i>Kontzientzia metalinguistikoa (2)</i>	9,85	9,47	0,474	379 192,310
<i>Oroimen-estrategiak</i>	28,01	27,03	1,735#	376 212,514
<i>Estrategia kognitiboak</i>	64,96	65,33	-0,352	362 190,395
<i>Oreka-estrategiak</i>	7,36	7,23	0,752	378 194,157
<i>Estrategia metakognitiboak</i>	29,96	28,10	3,139*	366 188,297
<i>Estrategia afektiboak</i>	18,20	17,50	1,804#	370 196,617
<i>Estrategia sozialak</i>	9,83	9,57	0,964	381 207,668
<i>Estrategiak orotara (Z puntuazioak)</i>	0,25	-0,64	2,026**	339 174,484

** $p < 0,001$ * $< 0,05$ # $< 0,10$

T-test analisisien arabera (.2), ez dago alde esanguratsurik lagineko gizonen eta emakumezkoen artean kontzientzia metalinguistikoa dagokionez.

Ikas-estrategiei begiratu, hiru estrategia-mota baliatzen dituzte emakumezkoek gehixeago gizonzkoek baino: oroimen-estrategiak ($p < 0,10$), estrategia metakognitiboak ($p < 0,05$) eta estrategia afektiboak ($p < 0,10$). Analisisiek bistaratu dituzten alde xume horiek areagotu egiten dira ikas-estrategia guztiak batera kontuan hartzen ditugunean, emakumezkoek dagozkien puntuazio estandarizatuaren batuketa 0,25koa eta gizonzkoek

na -0,64 izanik. Bi puntuazio horien arteko aldearen esangura-maila ere sendoago ageri da ($p < 0,001$).

Lagineko emakumezkoek, beraz, joera handiagoa erakusten dute gizonezkoek baino ikas-estrategiak erabiltzeko. Esan liteke, beraz, oro har, emaitza horiek bat datozela Oxford-ek (1993), beste hizkuntz ingurune abiapuntu harturik, plazaratu zituen ondorioekin.

.3: *Sexua eta
aldagai
psikosozialak*

<i>Sexua</i>	<i>Em.</i>	<i>Giz.</i>		
<i>Aldagai psikosozialak</i>	X_1	X_2	T	A. graduak
<i>Antsietatea</i>	56,56	56,16	0,2232	375 206,516
<i>Motibazioaren intentsitatea</i>	24,77	23,64	2,812*	373 171,461
<i>Noranzko integratiboa</i>	23,73	24,82	-1,591	381 208,236
<i>Noranzko instrumentala</i>	19,06	17,70	2,07**	378 190,582
<i>Euskara hizkuntzarekiko jarrerak</i>	28,37	27,36	1,690#	378 190,131
<i>Ikas-prozesuarekiko jarrerak</i>	29,55	28,75	1,749#	380 206,728
<i>Euskararen hitzunen aurreko jarrerak</i>	85,22	85,39	-0,96	365 179,390
<i>Jarrerak orotara</i>	0,1106	-0,2706	1,416	357 175,731

** $p < 0,001$ * $< 0,05$ # $< 0,10$

Sexu aldagaiaren eta aldagai psikosozialen artean erlaziorik ba ote dagoen ikusteko analisisiek alde nimitano batzuk utzi dituzte agerian hainbat aldagai psikozialetan bakarrik (.3). Antsietateak, motibazioaren noranzko integratiboak, euskararen hitzunen aurreko jarrerak eta oro har harturiko jarrerak ere ez dute hemen *sexu* aldagaiarekin erlaziorik erakutsi.

Motibazioaren intentsitateari dagokionez, bai esan daitekeela, analisi honen arabera, emakumezkoak gehixeago ahalegintzen direla gizonezkoak baino euskara ikastea ($p < 0,05$). Bestalde, emakumezkoek euskara ikasteko dituzten arrazoiak lotuago ageri dira hemen zergatik instrumentalarik gizonezkoen arrazoiak baino ($p < 0,01$). Hots, emakumezkoek gehiago begiratzen diete euskara ikasteak ekartzen ahal dizkieten onura praktikoei (lana, ikasketak...). Era berean, lotura dago, haatik ez oso sendoa, *sexu* aldagaiaren eta euskararen beraren aurreko

jarrerren eta ikas-prozesuarekiko jarrerren artean ere, emakumezkoek jarrera aldekoagoak baitituzte. Aldeen esangura-maila 0,10 baino txikiagoa da.

.4: Sexua eta lorpen-emaizak

<i>Sexua</i>	<i>Em.</i>	<i>Giz.</i>		
<i>Lorpen-emaizak</i>	X ₁	X ₂	T	A. graduak
<i>Mintzamena</i>	98,12	92,52	1,926 [#]	312 150,792
<i>Idazmena</i>	124,27	121,36	0,778	314 161,835
<i>Irakurmena</i>	11,02	11,95	0,207	315 198,629
<i>Gramatika-ariketa</i>	16,72	16,18	1,241	315 166,073
<i>Hiru trebetasunak batera</i>	0,1216	-0,2634	1,259	310 168,59
<i>Euskara-proba orotara</i>	0,2179	-0,3368	1,443	311 159,569
<i>Irakaslearen ebaluazioa</i>	32,47	32,03	0,456	313 154,486
<i>Ikaslearen autoebaluazioa</i>	31,45	31,19	0,412	311 159,238

** $p < 0,001$ * $p < 0,05$ $p \# < 0,10$

Taulan (.4) bistaratutako datuen arabera, ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean lorpen-emaizetan. Baina esatekoa da hemen bai sumatzen dela mintzamenean halako joera bat ($p < 0,10$) emakumezkoen mesedetan. Emakumezkoek trebetasun horretan lorturiko puntuazioen batez bestekoa 98,12 da gizonezkoena, berriz, 92,52.

Azken gogoetak

Laburtuz, bada:

- Asko dira sexuaren eta H₂ren eskurapenaren artean lotura dagoela erakusten duten ikerketak. Baina, lotura horren nolakoa ilun samar dago oraindik ere. Ikerketa askotan nesken aldeko nagusitasuna aditzera ematen bada ere, aurkakoa bistaratzen duten azterlanak ere zertan bazter utzirik ez dago. Esatekoa da, alabaina, “eztabaida” ez dela *gizonezkoak hobeak vs. emakumezkoak hobeak* baizik eta *emakumezkoak hobeak vs. emakumezkoak eta gizonezkoak berdinak*. Gizonezkoak lorpen-emaizetan hobeak direlako banaka batzuen aldarrikapena baino ez da.
- Gutxi dakigu, halaber, gizakiaren garunak eta sexuak elkarren artean dituzten lotura ustekoei buruz. Hemen aztertu dugunaren haritik, bi

gogoeta egingo dugu: a) gizonezkoen eta emakumezkoen garunak guztiz antzekoak direla dion ikertzailek badagoen arren, badirudi joera orokorra hurbilago dagoela desberdinak direla ametitzetik bestelakotik baino; eta b) emakumezkoen eta gizonezkoen garunak eta, halaber, lortzen dituzten maila linguistikoak desberdinak direla aitoriturik ere, ezin esan daiteke, oinarri nahikorik ez dago-eta, hizkuntzak ikastekoan egon daitezkeen aldeak gizon eta emakumezkoen garunak desberdinak izatearen ondorio direnik.

- Erabile historiko, sozial eta kulturek sexuarekin izan dezaketen zerikusia gero eta gehiago ari da aintzat hartzen; sexuaren arabera aldeak argiago azal daitezke-eta erabile horiei erreparatuta. Horren haritik, sexua baino genero hitza nahiago dute askok eta askok.
- Gure ingurunean, euskara-ikasle helduekin egin genuen azterlan batean (Perales, 2000), gizonezkoek eta emakumezkoek errendimendu-aldagaietan lortutako puntuazioen arteko aldeak ez ziren estatistikoki esanguratsuak. Hala ere, mintzamenen emakumezkoen aldeko joera ageritzen (ikus.4). Gainerako aldagaietan (kognitiboak eta psikosozialak) azaldutako aldeak bat datoz, oro har, beste hizkuntz ingurunetan egindako azterlanen emaitzekin eta gizonezkoek eta emakumezkoek modu desberdinean ikasten dutelako ideiarekin (ikas-estrategia desberdinak).
- Aurreko paragrafoan aipatu dugun azterlana era kuantitatiboan burutu genuen. Ikusitakoak ikusita, mereziko luke era kualitatiboan ere irakasleek nork bere irakas-estiloari erreparatzea aurrean dagoen ikaslea gizonezkoa edo emakumezkoa den edota kontuan hartzea, era berean, ikasgelako hizketa-txandean banaketa eta hari diskurtsiboaren nondik norakoa, esaterako.

Hizkuntz portaera erabile historiko sozial eta kulturek ekarria baldin bada, bidezkoa da pentsatzea tokian tokiko kulturak ere izango duela bere eragina. Ezin ahantz daiteke, bestalde, euskara-taldeetan ikaslerik gehienak emakumezkoak izaten direla, eta horrek bere isla izan lezakeela mintzagaiak, ikas-materialak, atazak-eta, aukeratzerakoan, esaterako. Eta irakasleei begira ere, ikertzekoa litzateke, era berean, ea gizonezkoek eta emakumezkoek berdin irakasten duten.

Sexua/generoa, bistan da, gai zabala eta mamitsua da. Gero eta liburu eta artikulu gehiago plazaratzen ari dira hizkuntzaren eta sexua/generoaren arteko erlazioaz. Mereziko luke, euskararen irakaskuntzari dagokionez, gaia xehekiago aztertu eta curriculumean ere kontuan hartzea.

Bibliografia

- Bacon, S. & Finneman, M.** 1992. Sex differences in self-reported beliefs about foreign-language learning and authentic oral and written input. *Language Learning* 42/4: 471-495.
- Bogaards, P.** 1990. Gaitasuna eta afektibitatea hizkuntza arrotzen ikaskuntzan. *Itzulpen Saila* 25-26. Donostia: HABE.
- Boyle, J.** 1987. Sex differences in listening vocabulary. *Language Learning* 37: 273-284.
- Brega, E. & Newell, J.** 1967. High school performance of FLES and non-FLES students. *Modern Language Journal* 51: 408-411.
- Brière, E.** 1978. Variables affecting native Mexican children's learning Spanish as a second language. *Language Learning* 28: 159-174.

- Burstall, C.** 1975. Factors affecting foreign language learning: a consideration of some recent research findings. *Language Teaching and Linguistic Abstracts* 8: 5-25.
- Burstall, C.** 1975. Factors affecting foreign language learning: a consideration of some recent research findings. *Language Teaching and Linguistic Abstracts* 8: 5-25.
- Carroll, J.** 1967/1968. Foreign language proficiency levels attained by language majors near graduation from college. *Foreign Language Annals* 1: 131-151.
- Cloos, R.** 1971. A four-year study of foreign language aptitud at the high school level. *Foreign Language Learning* 31: 285-314.
- Coates, J.** 2003. *Men talk: stories in the making of masculinities*. Oxford: Blackwell.
- Cole, N.** 1997. *The ETS gender study: how females and males perform in educational settings*. Princeton, NJ.: Educational Testing Service.
- Crawford, M.** 1995. *Talking difference: on gender and language*. London: Sage.
- Eckert, P. & McConnell-Ginet, S.** 2003. *Language and Gender*. CUP.
- Ehrlich, S.** 1997. Gender as a social practice. Implications for second language acquisition. *Studies in Second Language Acquisition* 19: 421-446.
- Ekstrand, L.** 1980. Sex differences in second language learning? Empirical studies and a discussion of related findings. *International Review of Applied Psychology* 29: 205-259.
- Ellis, R.** 1994. *The study of second language acquisition*. Oxford: Oxford University Press.
- Fairweather, H.** 1982. Sex differences. In J. G. Beaumont, (ed.), *Divided visual fields studies of cerebral organization*. London: Academic Press.
- Gass, S. & Varonis, E.** 1986. Sex differences in NNS/NNS interactions. In R. Day (ed.), *Talking to learn: conversations in second language acquisition*. Rowley, MA: Newbury house.
- Gleason, J.** 1995. Sex differences in parent-child interaction. In S. Philips, S. Steele & C. Tanz (eds.), *Language, gender & Sex, in comparative perspective*. Cambridge University Press.
- Hernández, J.** 2002. Kale neurketa: sexuaren araberako erabileraren emaitzak ea horien inguruan sortutako galderak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 43: 119-129.
- Holmes, J.** 1991. Language and gender. *Language Teaching* 24/4: 207-220.
- Hyde, J. & Linn, M.** 1988. Gender differences in verbal ability: a meta-analysis. *Psychological Bulletin* 104: 53-69.
- Jespersen, O.** 1922. *Language: its nature, development and origin*. London: Allen & Unwin.
- Julé, A.** 2002. Speaking their sex. A study o Gender and linguistic space in an ESL classroom. *TESL Canada Journal*, 19/2: 37-51.
- Kimura, D.** 1980. Sex differences in intrahemispheric organization of speech. *Behavior and Brain Sciences* 3: 240-241.
- Kimura, D.** 1983. Sex differences in cerebral organization for speeche and praxic functions. *Canadian Journal of Psychology* 37: 19-35.
- Langouet, G.** 1979. Technologie de l'éducation et démocratisation de l'enseignement: deus methods d'enseignements des langues vivantes. *Études de Linguistique Appliquée* 35: 58-77.
- Liski, E. & Puntanem, S.** 1983. A study of the statistical foundations of group conversation tests of spoken English. *Language Learning* 30: 1-42.
- Macauly, R.** 1978. The myth of female superiority in language. *Journal o Child Language* 5: 353-363.
- Maccoby, E. & Jacklin, C.** 1974. *The psychology of sex differences*. Stanford, CA: Stanford University Press.
- MacGlone, J.** 1980. Sex differences in human brain asymmetry: a critical survey. *Behavioral and Brain Sciences* 3: 215-263.
- Oxford, R.** 1993. Gender differences in styles and strategies for language learning: what do they mean? Should we pay attention? In J. Alatis (ed.), *Strategic interaction and language acquisition: Theory, practice, and research*. Washington D. C.: Georgetown University Press.
- Perales, J.** 2000. Euskara-ikasle helduen ikas-prozesua: ikaslearen baitako zenbait aldagairen eta arrakastaren arteko erlazioa. Doktore-tesia. UPV/EHU argitalpen zerbitzua.

- Pimsleur, P., Stockwell, R. & Comery, A.** 1962. A study of foreign language learning ability. *Journal of Educational Psychology* 53: 15-26.
- Politzer, R. & Weiss, L.** 1969. Developmental aspects of auditory discrimination, echo response and recall *Modern Language Journal* 53: 75-85.
- Sadker, M. & Sadker, D.** 1993. *Failing at fairness: how America's schools cheat girls*. New York: Scribner's.
- Smith, P.** 1970. A comparison of the cognitive and audiolingual approaches to foreign language instruction Philadelphia (Penns): Center for curriculum development.
- Steele, S.** 1988. Sex differences in language and the brain. In S. U. Philips, S. Steele & C. Tanz (eds.), *Language, gender sex in comparative perspective*. Cambridge University Press.
- Sunderland, J.** 1995. We're boys, miss!: finding gendered identities and looking for gendering of identities in the foreign language classroom. In S. Mills (ed.), *Language and gender: Interdisciplinary perspectives*. London: Longman.
- Suter, R.** 1976. Predictors of pronunciation accuracy in second language learning. *Language Learning* 26: 233-253.
- Vocolo, J.** 1967. The effect of foreign language study in the elementary school upon achievement in the same foreign language in the high school. *Modern Language Journal* 51: 463-469.
- Weatherall, A.** 2002. *Gender, language and discourse*. Hove: Routledge.
- Westphal, M., Leutenegger, R. & Wagner, D.** 1969. Some psychoacoustic and intellectual correlates of achievement in German language learning of junior high school students, *Modern Language Journal* 53: 258-266.